

# GABONETAN LOTERI BILA

*Doinua: "Kantari dabil txoria"*



**1**

Bila ta bila dabil  
Jaungoikoa lehenen,  
bila ta bila dabil  
Maria han-hemen.  
Jainkoak "NAHI"  
Mariak "BAI",  
Jaunak graziz plen-plen.  
Beragana jatsi da  
Jainkoa Belenen.

**2**

Bila ta bila dabiltz  
artzainak mendian,  
bila ta bila doaz  
Belengo bidean.  
Ta zer gero?  
Pozez bero  
Jesusen aurrean.  
Danak kantari doaz  
bihotzak betean.

**3**

Bila ta bila doaz  
Errege santuak  
bila ta bila bihotz  
argi ta sutsuak.  
Meltxor, Kaxpar  
ta Baltasar  
Jesusi musuak.  
Bide barritik doaz  
txit zoriontsuak.

**4**

Bila ta bila dabiltz  
Simeon ta Ana,  
bila ta bila beti  
etenbako lana.  
Laster dator,  
urten bizkor  
Jesus txotxogana.  
Berak dakar guretzat  
bake, poz ta dana.

**5**

Bila ta bila gabiltz  
batera, bestera,  
bila ta bila gabiltz  
nun ete dan Bera.  
Hau noiz arte?  
Ez aparte!  
Ez egin atzera.  
Bila ta bila goaz  
jo beti aurrera.

**6**

Bila ta bila gabiltz  
Jesus, Zu eta gu,  
bila ta billa beti  
alkar behar dogu.  
Zu gugana,  
gu Zugana  
bilaka jo ta su.  
Gabonetan etxean  
Zeu behar zaitugu.

A. Martzel